

## Xedapen Orokorrak

### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

#### Zk-1681

50/2001 DEKRETUA, martxoaren 13koa, zeinaren bitartez Hazien eta Mintegiko Landareen Zerbitzuaren kudeaketaren zati bat NEIKER, Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea sozietate anonimo publikoari atxiki baitzaio.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatuaren 10.16 artikulua xedatu duenaren arabera, eskumen osoa du zientzia eta teknikaren alorretako ikerketan, betiere, Estatuarekin koordinatuta. Ondorioz, Estatuko zerbitzuak eskualdatu egin zaizkio, ondorengo alor hauetan, eta honako arauen bitartez: nekazaritzako ikerketaren alorrekoak (irailaren 26ko 2756/1980 Errege Dekretua), ozeanografiako ikerketakoak (abuztuaren 3ko 2241/1981 Errege Dekretua), animalia-ekoizpen eta -osasunekoak (uztailaren 24ko 2030/1981 Errege Dekretua), eta landare-osasunekoak (irailaren 26ko 2752/1980 Errege Dekretua).

Era berean, 839/1985 Errege Dekretuaren bitartez, hazi eta mintegi-landareen zerbitzua ere eskualdatu zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoari.

Nekazaritzako, elikagaigintzako eta basogintzako ikerketa Nekazaritza Sailburuordetzaren jardun-arloen arteko bat da, maiatzaren 11ko 218/1999 Dekretuaren arabera, dekretu horrek Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatu baitu.

Era berean, Dekretu beraren arabera, Nekazaritza Zuzendaritzari dagokio «hazien eta mintegiko landareen antolamendu, kontrol eta ekoizpena». Zeregin horietako batzuetaz, hain zuzen, Hazien eta Mintegiko Landareen Zerbitzua arduratzen da, zeinak bere zereginak betetzeko eta laguntza teknikorako landare-osasunaren ikerketa-laborategia eta laginen lur saila baititu Ilarra izeneko finkan, Gaunan.

AZTI A.B. sozietate publikoa Bizkaiko Foru Aldundiak eratu zuen, urriaren 9ko 69/1984 Foru Dekretuaren bitartez. Sozietatearen helburua honako hau zen: arrantza-zientzia eta teknologiaren alorreko azterlanak, ikerketa, aholkularitza eta prestakuntza garatzea.

Maiatzaren 24ko 132/1988 Dekretuaren bitartez, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatea erosi egin zion Foru Aldundiari, zeren eta sozietatearen helburua Erkidegoko erakundeei zegokien eskumenen barruan baitzegoen, EAEko erakunde-harremanei buruzko 27/1983 Legearen (L.T.H.) 6. artikulua arabera. Sozietatearen helburua ere elikagaien alorrera zabaldu zen.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

#### Nº-1681

DECRETO 50/2001, de 13 de marzo de por el que se adscribe a la Sociedad Anónima Pública NEIKER, Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, parte de la gestión del Servicio de Semillas y Plantas de Vivero.

La Comunidad Autónoma de Euskadi posee competencia exclusiva en materia de investigación científica y técnica en coordinación con el Estado, al amparo de lo dispuesto en el artículo 10.16 del Estatuto de Autonomía, habiéndose traspasado los servicios del Estado en materia de investigación Agraria por R.D. 2756/1980 de 26 de septiembre, de Investigación oceanográfica por R.D. 2241/1981 de 3 de agosto, de Producción y Sanidad Animal por R.D. 2030/1981 de 24 de julio, de Sanidad Vegetal por R.D. 2752/1980 de 26 de septiembre.

Así mismo y por R.D. 839/1985, se traspasó a la Comunidad Autónoma del País Vasco el Servicio de Semillas y Plantas de Vivero.

La investigación agraria, alimentaria y forestal entra dentro de las áreas de actuación atribuidas a la Viceconsejería de Agricultura, mediante Decreto 218/1999, de 11 de mayo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura y Pesca.

Así mismo, y en virtud del citado Decreto, corresponde a la Dirección de Agricultura «ejecutar las acciones de ordenación, control y producción de semillas y plantas de vivero». Parte de las funciones citadas las desarrolla el Servicio de Semillas y Plantas de Vivero, que para el cumplimiento y apoyo técnico de sus actividades, dispone de un Laboratorio de investigación de sanidad vegetal y de una finca de muestras, denominada Finca la Ilarra, en Gauna.

La Sociedad Pública AZTI A.B. fue constituida por la Diputación Foral de Bizkaia mediante Decreto Foral 69/1984 de 9 de octubre, siendo su objeto social el desarrollo de actividades de estudios, investigación, asesoramiento y formación en materia de ciencia y tecnología pesquera.

Por Decreto 132/1988 de 24 de mayo, la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca adquiere la Sociedad de la Diputación Foral, ya que su objeto social se encuadra dentro de las competencias que según el artículo 6 de la Ley 27/1983 de relaciones institucionales de la C.A.E. (L.T.H.) corresponde a las instituciones comunes. Amplía asimismo el objeto social al área alimentaria.

Euskal Autonomia Erkidegoak AZTI A.B. erosi eta gero, Eusko Jaurlaritzak aipatu eskumena kudeatzeko zituen organoen integrazioa gertatu zen. Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 1989ko abenduaren 29an hartutako erabakian, AZTI A.B. ren barruan sartu zuen Nekazaritza eta Arrantza Sailaren pean zegoen Ozeanografiako Ikerketarako Zerbitzua, zeinak ikerketako eskumenak kudeatzen baitzituen, antzeko lanak egiten zizutzen-eta bi horiek, alor jakin batzuetan.

Uztailaren 177/1997 Dekretuaren bitartez, nekazaritzako ikerketa-zerbitzuaren (CIMA/SIMA) kudeaketa AZTI A.B. sozietate publikoari atxiki zitzaion. Atxikipen horrek 1998ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra.

Beraz, jarduerak banatze eta geroko integratze horrekin, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basozaintzako ikerketa AZTI, A.B. sozietate publikoaren baitan txertatu zen, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren pean, eta arrantzako eta elikagaien ikerketa, berriz, fundazio batean.

Akziodunen ez-ohiko batzar nagusi-unibertsalak, 1998ko ekainaren 30ean egindako bileran, aho batez onetsi zuen sozietatearen izena aldatzea, aurrerantzean «NEIKER Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B.» izango zen-eta. Sozietatearen estatutuen 1. artikulua ere aldatu egin zen, sozietatearen izen berriari egokitzeko.

Hona aipatu sozietatearen xedea:

– Ondoren aipatzen diren arloei buruzko ikerketa eta azterketa lanak burutzea: nekazaritza, ur, ingurugiro arloko zientziei buruzkoak eta, oro har, baliabide naturalei buruzkoak, nekazaritza, arrantza eta elikadura mailako teknologiak alde batera utzi gabe noski.

– Administrazio publikoari eta nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetako enpresei, ustiatzei eta industriei aholku teknikoak ematea.

– Nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetako teknika eta teknologia berriez profesionalak jabetzeko eta horiek aplikatzeko bide emango duten eta profesional mailakoak diren hezkuntza, gaikuntza eta espezializazio prozesuak finkatzea.

– Kalitatearen kontrol, segimendu eta ebaluazio jardunak garatzea eta nekazaritza, arrantza eta elikadura produktuak egite, eraldatze eta komertzializatze jardunetako arauak eta baldintza teknikoak betetzen diren ala ez zaintzea.

– Nekazaritza, arrantza eta elikadura produktuak sustatzeko eta horien publizitatea egiteko jardunak garatzea.

– Xede soziala bete ahal izateko, sozietateak parte hartu ahal izango du interes berezia duten espresetako kapital sozialean, kasu bakoitzerako finkatu daitezkeen baldintzen arabera.

Tras la adquisición de AZTI A.B. por la C.A.E., se realizó la integración de los órganos que el Gobierno Vasco tenía para gestionar esta competencia. Por acuerdo del Consejo de Gobierno de 29 de diciembre de 1989, se integró en AZTI A.B. el Servicio de Investigación Oceanográfica dependiente del Departamento de Agricultura y Pesca, que gestionaba las competencias en investigación, dado que ambas ejercían en algunos campos labores análogas.

Por Decreto 177/1997 de 22 de julio se adscribe la gestión del servicio de investigación agraria (CIMA/SIMA) a la sociedad pública AZTI A.B., surgiendo efectos a partir del 1 de enero de 1998.

Con la mencionada escisión de actividades y posterior integración se articula la investigación agrícola, ganadera y forestal en la Sociedad Pública AZTI, A.B., bajo la dependencia del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca y la investigación Pesquera y Alimentaria en una Fundación.

Por acuerdo de la Junta General Extraordinaria y Universal de accionistas, celebrada el 30 de junio de 1998, se acordó, por unanimidad modificar la denominación Social, que en lo sucesivo sería «NEIKER Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A.», modificándose, así mismo el artículo 1. de los Estatutos Sociales, ajustándose así a la nueva denominación de la Sociedad.

El objeto social de la citada Sociedad es el siguiente:

– Desarrollar actividades de investigación y realizar estudios en materia de ciencias agrarias, acuáticas, ambientales y en general de los recursos naturales, así como en tecnología agraria, pesquera y alimentaria.

– Prestar asesoramiento técnico a las Administraciones Públicas, a las empresas, explotaciones e industrias de los sectores agrario, pesquero y alimentario.

– Establecer los procesos de formación, capacitación y especialización profesional que permitan la asimilación y aplicación de nuevas técnicas y tecnologías en los sectores agrario, pesquero y alimentario.

– Desarrollar actividades de control, seguimiento y evaluación de la calidad y el cumplimiento de las normas y requisitos técnicos en las actividades de producción, transformación y comercialización de productos agrarios, pesqueros y alimentarios.

– Desarrollar actividades de promoción y publicidad de productos agrarios, pesqueros y alimentarios.

– Para el cumplimiento de su objeto social, la sociedad podrá participar en el capital social de empresas de particular interés en las condiciones que en cada caso se determinen

Nekazaritza eta Arrantza Sailak, haziak eta mintegiko landareak antolatu, kontrolatu eta ekoizteko zereginak egoki betetzeko, beharrezkotzat jo du hazi-zerbitzuko laborategiaren helburuak eta kalitatea hobetzea, eta zehaztasun eta azkartasun handiagoa emateko horiei.

Helburu horretarako, egokien iruditu zaiona da hazien eta mintegiko landareen zerbitzuaren kudeaketaren zati bat –hain zuzen ere, Gaunako Ilarrako laborategian eta finkan egiten diren jarduerak– NEIKER, A.B. sozietate publikoari atxikitzea. Izan ere, sozietate hori espezializatuta dago, besteak beste, landareen alorreko ikerketa, azterketa eta kontrolean, eta, hartara, NEIKER, A.B.n dagoen ezagutza zientifikoa eta giza- eta gauza-baliabideak aprobetxatu, eta etekin hobea aterako litzaieke.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko martxoaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– 1.– NEIKER – Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. sozietate publikoari honako hau atxiki zaio: Hazien eta Mintegiko Landareen Zerbitzuaren kudeaketaren zati bat; hain zuzen ere, Gaunako Ilarra laborategian eta finkan egiten diren jarduerena.

2.– Nekazaritza eta Arrantza Sailak bere esku gordeko du hazien eta mintegiko landareen antolamendu, kontrol eta ekoizpenari dagozkien eginkizunak gauzatzeko, maiatzaren 11ko 218/1999 Dekretuak xedatu duenaren arabera.

**2. artikulua.**– 1.– NEIKER – Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. sozietate publikoak atxiki zaizkion eginkizunak bete dituzan, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, inbentarioa egin ondoren, dekretu honen eranskinean zerrendatutako ondasun higiezinak eta zerbitzuari atxikitako ondasun higikorrak jarriko ditu aipaturiko sozietate publikoaren esku, berak erabil ditzan zerbitzuaren atxikipenak dirauen bitartean.

2.– Aipaturiko ondasunak NEIKER, A.B.ren esku jartzeko, bi emate-akta egingo dira, alegia, «Ondasun higiezinak emateko akta» eta «Ondasun higigarriak emateko akta», eta Sailaren zein sozietate publikoaren ordezkariak sinatuko dute. Edonola ere, horrek guztiak ez du esan nahi ondasun horien titulartasuna eta kalifikazio juridikoa ezertan aldatzen denik.

Akta horiek ondasun guztien zerrenda zehatza jasoko dute, eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin koordinaturik egingo dira.

**3. artikulua.**– 1.– NEIKER, A.B. sozietate publikoak behartuta dago, zerbitzuaren atxikipenak dirauen

El Departamento de Agricultura y Pesca, para el adecuado desarrollo de las funciones de ordenación, control y producción de semillas y plantas de vivero, considera necesario mejorar los objetivos y la calidad del laboratorio del servicio de semillas, dotándoles de mayor exactitud y rapidez.

A tal efecto, entiendo que lo mas adecuado es adscribir parte de la gestión del servicio de semillas y plantas de vivero, en concreto las actividades que desarrolla el Laboratorio y la Finca la Ilarra en Gauna, a la Sociedad Publica NEIKER, S.A., especialista en la investigación, análisis y control, entre otros, en el área vegetal; aprovechando y optimizando el conocimiento científico y los medios existentes en NEIKER, S.A., tanto de personal como los materiales.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su Sesión del día 13 de marzo de 2001,

#### DISPONGO:

**Artículo 1.**– 1.– Se adscribe a la Sociedad Anónima Pública NEIKER- Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A. parte de la gestión del Servicio de Semillas y Plantas de Vivero, en concreto las actividades que desarrolla el Laboratorio y la Finca la Ilarra de Gauna.

2.– El Departamento de Agricultura y Pesca se reserva el ejercicio de las funciones de ordenación, control y producción de semillas y plantas de vivero, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 218/1999, de 11 de mayo.

**Artículo 2.**– 1.– Para el desarrollo de las funciones que se adscriben, el Departamento de Agricultura y Pesca, previa confección del correspondiente inventario, pondrá a disposición de la Sociedad Pública NEIKER, S.A. para su utilización y hasta tanto dure la adscripción del servicio, los bienes inmuebles que se relacionan en el Anexo del presente decreto y los bienes muebles adscritos al servicio.

2.– La puesta a disposición no supone cambio de titularidad ni de calificación jurídica de los bienes, inmuebles y muebles, que son su objeto y se formalizará mediante la suscripción de dos actas de entrega, «Acta de entrega de bienes inmuebles» y «Acta de entrega de bienes muebles» que serán suscritas por el representante del departamento y por el representante de la Sociedad.

Las referidas Actas contendrán la relación detallada de los bienes y se elaborarán en coordinación con la Dirección de Patrimonio y Contratación.

**Artículo 3.**– 1.– La Sociedad Pública NEIKER, S.A. está obligada, mientras dure la adscripción del servicio,

bitartean, 2.1. artikuluan aipatutako instalazioak egoe-  
ra onean mantentzera, eta horretarako behar diren obra  
guztiak egitera.

2.- NEIKER, A.B. sozietate publikoak behar beza-  
la artatuko ditu 2.2. artikuluan aipatutako inbentarioan  
jasotzen diren ondasun eta elementuak, eta berria ja-  
rriko du lehengoa galdu, hondatu edo zaharkiturik gel-  
dituz gero.

**4. artikulua.**- 1.- NEIKER, A.B. sozietate publi-  
koak ahalmena izango du atxiki zaizkion eginkizunak  
betetzeko behar diren instalazioak sustatu eta eraikitze-  
ko, eta 2.1. artikuluan deskribatu eta egun dauden ins-  
talazioen egokitzapena sustatu eta burutzeko.

2.- Instalazioen oinarritzko egiturari edo segurtasu-  
nari eragiten dieten obra-proiektuek burutzeko, gai ho-  
rri ezar dakiokkeen arauteria zorrotz beteko da. Proiektu-  
ok, gainera, Natur Ingurunearen Antolamendu eta  
Ikerketa Zuzendaritzaren onespina jaso behar dute, On-  
dare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenen kal-  
tetan gabe.

3.- Publikotasun eta lehiaren printzipioen arabera,  
maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen xedapen gehiga-  
rrian ezartzen den legez, eta aplikatzekoa den legeria  
zibil eta merkataritzako legeriaren arabera egingo ditu  
kontratazioak NEIKER, A.B. sozietate publikoak.

4.- Artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako ins-  
talazioak eraiki, egokitu, aldatu edo hobetzeko obrak  
Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarera bilduko di-  
ra, Administrazio honen jabetzako ondasunetan egiten  
badira.

**5. artikulua.**- 1.- Sozietateak eskuratu eta zerbi-  
tzurako beharrezkoak diren ondasun eta eskubideez ba-  
liatzeko egintzak edota ondasun eta eskubide horiek  
kargaren baten menpean jartzeko egintzak burutu ahal  
izateko, beharrezkoa izango da Nekazaritza eta Arran-  
tza Sailak aldez aurretik baimena eman dezan.

2.- Sozietatearen titulartasunekoak izanik, zerbi-  
tzuari loturik dauden edo zerbitzua egiteko beharrez-  
koak diren ondasun eta eskubideak zein diren zehazte-  
ko, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ondasun eta esku-  
bide horien zerrendak onetsi ahal izango ditu, sozietate-  
teari entzun ondoren. Zerrenda horiek aldatu ahal izan-  
go dira bilakaera teknologikoaren arabera.

**6. artikulua.**- Dekretu honen bidez NEIKER, A.B.  
sozietate publikoari egin behar zaion atxikipenaren on-  
dorioz, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu  
bategina onetsi duen martxoaren 24ko 1/1995 Errege  
Dekretuaren 44. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie  
Gaunako Ilarrako laborategiko eta finkako zerbitzuari  
atxikitako lan-kontratuko langileei.

a mantener las instalaciones descritas en el artículo 2.1,  
en perfectas condiciones y a realizar las obras que para  
ello sean necesarias.

2.- La Sociedad Pública NEIKER, S.A. conservará  
adecuadamente los bienes y elementos que figuren en  
el inventario a que hace referencia el artículo 2.2. re-  
novándolos en caso de pérdida, deterioro o cuando que-  
den obsoletos.

**Artículo 4.**- 1.- La Sociedad Pública NEIKER, S.A.,  
podrá promover y construir las instalaciones necesarias  
para el desarrollo de las funciones encomendadas, co-  
mo promover y acometer la adecuación de las existen-  
tes y descritas en el artículo 2 apartado 1.

2.- Los proyectos de obras que afecten a la estruc-  
tura básica de las instalaciones o a la seguridad de las  
mismas, serán realizados con estricto cumplimiento de  
la normativa aplicable en la materia, y serán objeto de  
aprobación por la Dirección de Investigación y Orde-  
nación del Medio Natural, sin perjuicio de las compe-  
tencias de la Dirección de Patrimonio y Contratación.

3.- La Sociedad Pública NEIKER, S.A., ajustará sus  
contrataciones a los principios de publicidad y concu-  
rrencia, conforme lo establece la Disposición Adicional  
de la Ley 13/1995, de 18 de mayo, y a la legislación ci-  
vil y mercantil que le sea de aplicación.

4.- Las obras para la construcción, adecuación, mo-  
dificación o mejora de las instalaciones señaladas en el  
apartado primero del presente artículo, se integrarán en  
el patrimonio de la Comunidad Autónoma del País Vas-  
co, cuando se realicen sobre bienes de propiedad de es-  
ta Administración.

**Artículo 5.**- 1.- Los actos de disposición y grava-  
men de los bienes y derechos adquiridos por la Socie-  
dad y necesarios para el desenvolvimiento del servicio,  
requerirán la previa autorización del Departamento de  
Agricultura y Pesca.

2.- A efectos de la determinación de los bienes y de-  
rechos de titularidad de la Sociedad que se encuentren  
afectos o sean necesarios para el servicio, el Departamen-  
to de Agricultura y Pesca, previa audiencia de la Socie-  
dad, podrá aprobar las relaciones de tales bienes y de-  
rechos. Dichas relaciones podrán ser modificadas en fun-  
ción de la evolución tecnológica.

**Artículo 6.**- 1.- Como consecuencia de la adscrip-  
ción que, de acuerdo al presente decreto, se realiza a fa-  
vor de la Sociedad Pública NEIKER, S.A., al personal  
laboral adscrito al servicio del Laboratorio y de la Fin-  
ca la Ilarra en Gauna, del Servicio de Semillas y Plan-  
tas de Vivero, le será de aplicación lo dispuesto en el  
artículo 44 del Real Decreto 1/1995, de 24 de marzo  
por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del  
Estatuto de los Trabajadores.

**7. artikulua.**– 1.– Hazien eta Mintegiko Landareen Zerbitzuaren zati baten kudeaketa atxiki hori berez itzuliko da Nekazaritza eta Arrantza Sailera ondoko baldizko hauetan:

a) NEIKER, A.B. sozietate publikoak kiebra jo edo ordainketak etenez gero.

b) NEIKER, A.B.k Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoaren izaera galduz gero.

2.– Zerbitzua Administrazioari itzuliz gero, ondorioak hauek izango dira:

a) Sozietateari zerbitzuaren kudeaketarako eman zaizkion ondasunak berreskuratuko ditu Administrazioak, kontserbazio eta funtzionamendu egoera onean.

b) Itzulketaren unean itzultzen den zerbitzu jakin horretan, hau da, Gaunako Hazi Laborategian eta Saiotarako Finkan, diharduten lan-kontratuko langileak Administrazioan sartuko dira, indarreko lan-arauek ezartzen dituzten baldintzetan.

c) Sozietateak eskuratu eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ustez zerbitzua egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen jabetza eta titulartasuna Administrazioaren esku geratuko da, bidezkoak diren amortizazioak ordaindu eta gero.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**– Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau bete eta garatzeko xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.**– Dekretu hau 2001eko apirilaren lehen jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko martxoaren 13an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

**Artículo 7.**– 1.– Revertirá automáticamente al Departamento de Agricultura y Pesca la gestión de parte del Servicio de Semillas y Plantas de Vivero que se adscribe, en los siguientes supuestos:

a) Situación de quiebra o suspensión de pagos de la Sociedad Anónima Pública NEIKER, S.A.

b) Pérdida de la condición de Sociedad Pública del Gobierno Vasco de NEIKER, S.A.

2.– La reversión a la Administración del servicio producirá los siguientes efectos:

a) La recuperación de los bienes que hayan sido entregados a la Sociedad para la gestión de dicho servicio en el estado de conservación y funcionamiento adecuado.

b) La incorporación a la Administración, en las condiciones que establezca la normativa laboral en vigor, del personal laboral que, en el momento de la reversión, se encuentre desempeñando funciones en el servicio concreto que se revierta, a la sazón el Laboratorio de Semillas y la Finca de Ensayos de Gauna.

c) La reversión de la propiedad y titularidad de aquellos bienes y derechos adquiridos por la Sociedad que el departamento de Agricultura y Pesca considere necesarios para el servicio, previo pago, en este último supuesto, de las amortizaciones pendientes.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– Se faculta al Consejero de Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo del presente Decreto.

**Segunda.**– El presente Decreto entrará en vigor el día 1 de abril de 2001.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de marzo de 2001

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,  
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

#### ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

1.– KOKALEKUA: HARANA (ARABA).

Nekazaritza-gunea: Azalera, 4.520 m.<sup>2</sup>

#### ERAIKINAK

AZALPENA	AZALERA, GUZTIRA	ERABILERA	TITULUA
Biltegia	1.477m. <sup>2</sup>	Biltegia	Jabetza
Etxebizitza eta laborategia	520 m. <sup>2</sup>	Etxebizitza eta laborategia	Jabetza
Berotegia	927 m. <sup>2</sup>	Berotegia	Jabetza

## 2.- KOKALEKUA: GAUNA, ALEGRIA-DULANTZIKO ADMINISTRAZIO-BATZARRA

## FINKAK

AZALPENA	AZALERA, GUZTIRA	ERABILERA	TITULUA
Finka	150.000 m. <sup>2</sup>	Ikerketa	Errentamendua

## ERAIKINAK

AZALPENA	AZALERA, GUZTIRA	ERABILERA	TITULUA
Biltegia	87,21 m. <sup>2</sup>	Biltegia	Jabetza
Biltegia	145,84 m. <sup>2</sup>	Biltegia	Jabetza
Etxebizitza	145,16 m. <sup>2</sup>	Etxebizitza	Jabetza
Oilategia	53,05 m. <sup>2</sup>	Oilategia	Jabetza

## RELACION DE BIENES INMUEBLES

## 1.- LOCALIZACION: ARANA(ALAVA).

Complejo Agrícola: Superficie 4.520 m.<sup>2</sup>

## CONSTRUCCIONES

DESCRIPCIÓN	SUPERFICIE TOTAL	DESTINO	TÍTULO
Almacen	1.477m. <sup>2</sup>	Almacen	Propiedad
Vivienda y Laboratorio	520 m. <sup>2</sup>	Vivienda y Laboratorio	Propiedad
Invernadero	927 m. <sup>2</sup>	Invernadero	Propiedad

## 2.- LOCALIZACION: GAUNA, JUNTA ADMINISTRATIVA DE ALEGRIA

## FINCAS

DESCRIPCIÓN	SUPERFICIE TOTAL	DESTINO	TÍTULO
Finca	150.000 m. <sup>2</sup>	Investigación	Arrendamiento

## CONSTRUCCIONES

DESCRIPCIÓN	SUPERFICIE TOTAL	DESTINO	TÍTULO
Almacen	87,21 m. <sup>2</sup>	Almacen	Propiedad
Almacen	145,84 m. <sup>2</sup>	Almacen	Propiedad
Vivienda	145,16 m. <sup>2</sup>	Vivienda	Propiedad
Gallinero	53,05 m. <sup>2</sup>	Gallinero	Propiedad